


# EUROPAKO MUGIKORTASUN ASTEA

IRAILAK 16-22

[www.getxo.eus/semgetxo](http://www.getxo.eus/semgetxo)



**Konbinatu eta mugitu!** goiburua daraman aurtengo Europako Mugikortasunaren Asteak hainbat garraio modu erabiltzera eta konbinatzera gonbidatzen gaitu hiri barruko pertsonen eta merkantzien joan-etorrietan, eraginkortasun, azkartasun, aurrezpen eta jasangarritasun handiagoa lortzeko.

Hiriguneetan mugikortasunerako aukera asko ditugu, motorizatuak eta motorrik gabek, eta horiek partekatuak, publikoak edo banakakoak, tradizionalak edo berriak izan daitezke. Horien barruan oinez eta bizikletaz

**Helburua garraiobide egokiena aukeratzea da, modu automatikoan automobila hartu behar barik, baita ibilbide laburrak egiteko ere**

ibiltzea, garraio publikoa (autobusa, tranbia, metroa eta trena) eta beste asko daude, partekatutako bizikletak, taxiak, aurretik erreserbatutako lantzaderak edo partekatutako

ibilgailuak, besteak beste. Testuinguru horretan, multimodalitateak hiri barruko joan-etorrietarako moduen konbinazio posible asko biltzen ditu.

Multimodalitate kontzeptua barneratzean, eta gure bidaietan zenbait garraio metodo jasangarri sartzean, ibilbidean egiten dugun denbora irakurtzeko, lan egiteko edo lasitzeko baliatu dezakegu. Ariketa fisiko gehiago egingo dugu oinez edo bizikletaz bagoaz, dirua aurreztuko dugu eta ingurumenaren kontserbazioari lagunduko diogu.

## IBILGAILU JASANGARRIEN ERAKUSKETA ETA PROBA

IRAILAK 21-22-23  
GETXO KIROL PORTUA

11:00etatik 20:00etara

Zatoz azken ibilgailu elektrikoak, hibridoak eta gasezkoak ezagutzera eta gidatzera

SARRERA DOAN



[www.getxosostenible.com](http://www.getxosostenible.com)

Irailaren 21ean, 22an eta 23an, Getxoko Kirol Portuan **ibilgailuen jasangarrien** erakusketa egingo da.

Hiru egun horietan, 11:00etatik 20:00etara, automozioaren alorreko enpresa garrantzitsuenetako batzuk ibilgailu hibridoak, elektrikoak eta gasezkoak erakutsiko dituzte Kirol Portuko amarratzeen pasealekuan, eta ibilgailuak jarriko dituzte nahi dutenen esku, portu inguruetan gidatze probak egiteko.

Toyota, Lexus, Mercedesen Smart, Renault, Peugeot, Infinity, Mitsubitsi, Seat eta Nissan markatako ibilgailuak probatu ahal izango dira.

Beste enpresa eta erakunde batzuk ere bertan egongo dira, mugikortasun jasangarriaren alorrean beste pro-

duktu eta zerbitzu batzuei buruzko informazioa eta azalpenak emateko.

Energiaren Euskal Erakundea bizikleta elektrikoekin egongo da; SIPP patinete elektrikoekin; Eysa etxeak mugikortasunerako aplikazioak azalduko ditu; Ingeteam-ek ibilgailuentzako kargagailuak erakutsiko ditu, eta Nortegas-ek gasezko Seat ibilgailua.

Ibilgailu horiek probatzeko aukera gidatzeko karneta duten guztientzat zabalik egongo da. Hala nahi dutenek, bisitaren unean bertan eskatu ahal izango dituzte ibilgailua gidatzeko probak.

Informazioa:  
[www.getxosostenible.com](http://www.getxosostenible.com)

## Mugikortasunari buruzko jardunaldia

Datorren irailaren 21ean, 11:00etatik aurrera, Getxolan-en, erakunde publikoek, instituzioek eta sektoreko enpresek eta eragileek Mugikortasun Jasangarriari buruzko Jardunaldian hartuko dute parte. Bertan, mugikortasun jasangarriaren egungo egoerari eta etorkizunari buruzko zenbait gai eta alderdi landuko dira.

Getxoko Udaletik, Joseba Arregui, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitzaren zinegotziak, GHMJ-PMUSaren, Getxoko Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planaren, proposamen nagusiak azalduko ditu.

Logistikako Euskal Erakundeko (LEE-IVL) Iratxe García, e-commerce izeneko mugikortasunean eragiten ari den ondorioak landuko ditu.

Valentín Domínguez Energiaren Euskal Erakundeko (EEE-EVE) teknikariak ibilgailu elektrikoak Euskadin dituen erronka eta aukerak aztertuko ditu.

Euskadiko Mugikortasunaren eta Logistikan Clusterretik, Fernando Zubillagak Merkantzien hiri barruko banaketa (MHB-DUM) aztertuko du, hirietako mugikortasunerako faktore kritikoetako bat.

Juan Ramón Merodio Leioa Berrri Mobility-ko zuzendari komertzialak euren flotatan ibilgailu elektrikoetara aldatzeko aholkuak emango dizkie enpresei eta, benetako ekilorea balitz bezala, argi orduak ahalik eta gehien baliatzeko eta, horrela, energia garbia hornitu ahal izateko eguzkiaren orientazioa jarraitzen duen solar all-in-one SmartFlower sistema aurkeztuko du. Sistema horrek etxebizitzarako, motor elektrikoak duen ibilgailurako, bietarako edo beste erabilera batzuetarako balio du.

Norte Gasetik, berriz, gasak ibilgailuen erregai gisa dituen abantailak azalduko dituzte.

Jardunaldietara joatea librea izango da.



MUGIKORTASUN JASANGARRIARI BURUZKO JARDUNALDIA. Irailaren 21ean, 11:00etan. Getxolan. Ogoño kalea, 1. Areta.



## “Mugi zaituz Getxotik” modu jasangarrian eta sariak irabazi

Irailaren 16tik 31ra, garraio publikoan 80 kilometro, bizikletan edo patinetan 40 kilometro edo oinez 20 kilometro egiteko “Mugi zaituz Getxotik” erronka osatzen baduzu, opariak eskuratu eta zenbait saltokitan beharpenak lortu ahal izango dituzu.

### Zelan parte hartu

Horretarako, doako aplikazio bat jaitsi beharko duzu zure telefono mugikorrera, alta eman eta zure ibilbideak erregistratzen hasi.

Proposatutako erronka betetzen duena 4 opari erakargarrien zozketan sartuko da. Horrez gain, partaideek ziklo edo puntu bat irabaziko dute garraio publikoan egindako kilometro bakoitzarengatik, 2 ziklo bizikletan edo patinetan egindako bakoitzarengatik eta 4 ziklo oinez egindakoarengatik. Lortutako zikloen ordez, [www.mueveteporgetxo.com](http://www.mueveteporgetxo.com) webgunean ikus dezakezun produktuen katalogoko beharpenak eskuratu daitezke. Webgunean izena eman eta ekimena hobetu ahal izango duzu.



## MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ALDEKO GINKANA



Orientaziorako hiri Ginkana. Partaideak, mapa erraza interpretatuz kontroleko ezinbesteko puntu batzuetatik igaro beharko dira ibilbidean, eta gutxienez bi garraio jasangarri erabili: metroa, autobusa, bizikleta, patinak edo oinez joatea. Parte hartzen duten pertsona guztien artean zenbait saria zozketatuko da frogaren amaieran.

Igandea, irailak 16

Irteera: 10:00etan, Algortako Geltokia plazatik.

Beharrezkoa aurretik izena ematea: [semgetxo@gmail.com](mailto:semgetxo@gmail.com) • T. 649 480 097

Oinarriak: [www.getxo.eus/semgetxo](http://www.getxo.eus/semgetxo)

## ARGAZKI LEHIAKETA. Konbinatu eta Mugitu!

Parte hartu ahal izateko, pertsona bakoitzak bi argazki bidali beharko ditu, bi garraio jasangarri erabiltzen ari dela: metroa, autobusa, bizikleta, patinak edo oinez.

Saria: bizikleta tolesgarria

Oinarriak:

[www.getxo.eus/semgetxo](http://www.getxo.eus/semgetxo)



## BIZIKLETAN IBILTZEN IKASI

Doako ikastaroari esker, nahi duten pertsona guztiek bizikletan ibiltzen ikasi ahal izango dute. Helduentzako bizikletak egongo dira erabilgarri. Haur txikiek beren neurrirako egokiak diren bizikletak eraman beharko dituzte eta 8 urtetik gora izan. Ikastaroak praktiketako bost egun biltzen ditu. Ordubeteko saioak izango dira.

*Evaristo Txurruka kaian. Bi txanda aukeran: 18:00etatik 19:00etara, edo 19:00etatik 20:00etara.*

Beharrezkoa da aurretik izena ematea: [semgetxo@gmail.com](mailto:semgetxo@gmail.com) • T. 652 77 17 02

## CINECICLETA, FILMAK PEDALEI ERAGINEZ

Isabelek eta Carmelok, Cinecicleta kideak, bi urteko ibilbidea egin zuten Afrikan zehar bizikletaz, Madrildik abiatuta, eurak zeramaten zine ibiltariarekin, filmak, film laburrak eta dokumentalak eskainiz. Getxon euren esperientzia azalduko dute, ikus-entzunezko proiektioaren laguntzarekin eta, horretarako, elektrizitate ez zegoen Afrikako urruneko herrixketan gertatzen zen bezala, ikus-entzuleen laguntza beharko dute energia lortzeko: pedalei eraginez.

**Asteazkena, irailak 19**

18:30ean. Algortako Kultur Aretoa.

Villamonte kalea 8A, Algorta



## AUTORIK GABEKO EGUNA LARUNBATA 22AN OSPATU

Autorik gabeko eguna ospatuko dugunez, larunbatean, irailaren 22an, 08:00etatik 20:00etara bitartean, **Algortako eta Areetako erdiguneetan zirkulazioa etenda egongo** da jarduera ludiko ugari egin ahal izateko.

Pertsonak izango dira kaleetako protagonista nagusiak, ingurumena eta hiriko espazio gizatiarragoa eta bizitzeko egokiagoa denaren osaera errespetatuko lituzkeen mugigarritasun iraunkorra aldarrikatzeko asmoz. 12:00etatik aurrera, kaleak beteko dituzte udalerriko kirol-taldeen bultzatutako jarduerak: haurrentzako puzgarriak eta zirkuituak, bizikletak eta abar.



## IBILGAILUEN ZIRKULAZIO ETENA ALGORTAN ETA AREETAN

Irailaren 22an, 08:00etatik 20:00etara, Algortako eta Areetako erdiguneetan, mugatuta egongo da ibilgailu pribatuen zirkulazioa eta aparkamendua. Kale horietako garajeetatik ibilgailuak ateratzea bakarrik baimenduko da. Murrizketa horiek ez dute eraginik izango garraio publikoan eta Udalak alde aurretik emandako baimena duten establezimenduetako ibilgailuetan. Eskerak: [ingurugiroa@getxo.eus](mailto:ingurugiroa@getxo.eus)

Mesedez, kendu zure ibilgailua aipatutako kaleetatik antolatutako jarduerak oztopa ez ditzan. Eremu horietan aparkatuta dauden ibilgailuak garabiak kenduko ditu.

### Areeta



### Algorta



## BIZIKLETEN MANTENTZE-LANETARAKO TAILERRA

Bizikleten oinarriko mantentze eta konponketa lanak ikasteko doako tailerra, helduei zuzenduta, ostegunean, irailaren 20an, egingo da, 19:00etan, Bici Bilbao tailerrean.

Mariandresena kalea 1, Algorta. Beharrezkoa izango da aurretik izena ematea emailaz [semgetxo@gmail.com](mailto:semgetxo@gmail.com) helbidean edo **652 77 17 02 telefono** zenbakira deituz.

**Umeentzat**

6 eta 16 urte arteko umeentzat irailaren 22an, larunbatean, egingo da, 10:30etik 13:30era Ingurumen Ikasgelan.

Informazioa eta izen ematea:

[info@ingurumenaretogetxo.eus](mailto:info@ingurumenaretogetxo.eus) • Tel. 688 88 35 96

